

## B12

## Tenpora baten baneroean...

Eskuizkribua 1179v-1180r orrialdeetan zabaltzean, poema hau osorik ikusten da, bi zutabetan, orrialde bakoitzeko testu nagusiaren eskuinean. Bertso-lerroak ahapaldi-banakatarik gabe idatzi ziren, baina gero norbaitek launakako ahalpaldiak bereizi ditu marra horizontalez, eta lehenengo 40 bertso-lerroen ondoan 1-10 ahapaldi-zenbakiak erantsi ditu. Gure ustez distiko-segida bat da, eta hamar silabako bertso-lerroak txandakatzen dira zortzi silabakoekin; bakoitiak bertso-lerro libreak dira, eta bikoitietan -u errima bokalikoa dago (gauza berttua ikusi dugu A16, B5 eta B11 poemetan ere).

Poema hau eta testu nagusiko A15 (*Lo que acaeció a un galán con una dama en Álaba*) elkarri lotuta ulertu behar dira, funtsean gauza bera kontatzen baita bietan: neska eta mutila elkartu direnean, neskari ihes egin dio uzkerak eta lotsatuta geratu da; neskak lotsatuta izateko arrazoirik izan ez dezan, mutilak ere uzkerria askatzen du neskaren aurrean.

Uzkerren inguruko poema eskatologikoak ez dira ezohikoak mendebaldeko literaturetan; gaztelaniazkoen artean, Quevedorenak dira ospetsuenak. Lazarragaren kasuan, aipagarria da gaztelaniazkoa testu nagusian izatea eta euskarazkoa alboko testuetan; horrek argi erakusten du zein iritsi den eskuizkribura lehenengo, eta ziur aski adierazten du gaztelaniazkoan oinarriturik idatzi dela euskarazkoa.

<1179v> Tenpora baten baneroean<sup>1</sup>  
dama eder bat servidu;<sup>2</sup>

<sup>1</sup> *baneroean*: Mendebaldeko testu zaharretan, deklinabide mugatuan bezala, *a + a > -ea* disimilazioa gertatzen da adizki jokatuetan ere, *-an / -ala* atzizkiak gehitzean: *doa + -an > doean (RS)*, *daroa + -an > daroanean (VJ)* (cf. *FHV* 115). Hona Lazarragaren eskuizkribuan bildu ditugun adibideak: *joean* (AL: 1138v, B30: 6), *cirean* (AL: 1142v, AL: 1144r, AL: 1146v, AL: 1152r, AL: 1153v, A11: 13, A11: 17, A26: 120, A28: 100), *direan* (AL: 1147v, AL: 1152r, A1: 15, B15: 62), *çarean* (AL: 1152v, A12: 16, A17: 111, B3: 65, B16: 31, B16: 44), *guinean* (A7: 8, B16: 86), *cinean* (A26: 94, A26: 156), *neroean* (B16: 14), *cireala* (AL: 1145r), *joeala* (AL: 1147r), *çareala* (AL: 1151r), *direala* (AL: 1152r), *neroeala* (B16: 16), *eroeanari* (A29: 74), eta *-ea > -ia-* aldaketarekin *dirian* (B28: 15). Ohar gaitetzen Landuccik aditz gutxi dakarrela eta zaila dela gertakizun honi buruzko ondorioz ateratzea, baina bada adibide bat behintzat iradokitzen duena Landuccirenean ez bide dela halakorik gertatzen (“antecedente, aurrera doana”).

Bestalde, *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko soila da batzuetan, eta ez du nahitaz galdegaia markatzen; hala da poema honetako B12: 1, B12: 19, B12: 23, B12: 29, B12: 41, B12: 53 eta B12: 56 lerroetan.

<sup>2</sup> *baneroean / dama eder bat servidu*: ‘dama eder bat serbitu ohi nuen’; ‘partizipioa + *joan / eroan*’ perifrasi testu zaharretan usu agertzen zaigu ohitura edo maiztasuna adierazteko. Lazarragak ere behin

audenciaric<sup>3</sup> ez emunaz  
oy<sup>4</sup> ninduan penadu.  
Gabaz-egunaz oy nituan 5  
aren ateac rondadu;  
ascotan sarri nic neroean  
requeridu ta seguidu.<sup>5</sup>  
Aldi bat<sup>6</sup> lecu secretu baten  
neuroni cidan<sup>7</sup> aguindu: 10  
“Jentil onbrea, ona çatozque,<sup>8</sup>  
gura banoçu gozadu”.  
Aren aoti berba oa<sup>9</sup>

---

baino gehiagotan erabiltzen du; cf., besteak beste, *gaxqui daroae guiadu* (A9: 24), *Ene capaac egon doaz / ayn ondo toleztaduric* (A23: 53-54), *baneroean / dama eder bat servidu* (B12: 1-2) eta *ascotan sarri nic neroean / requeridu ta seguidu* (B12: 7-8).

<sup>3</sup> *audenciaric*: *audencia* forma ondo lekukoturik dago gaztelaniaz XVI. eta XVII. mendeetan (21 aldiz *CORDE* datu-basean), *audiencia* askoz ere erabiliagoa den arren. Gogoan izan euskaraz beti *pacencia*-forma (A23: 12, A27: 16 eta B8: 5) erabiltzen dela Lazarragaren eskuizkribuan; erdaraz, ordea, *paciencia* (A18: 40).

<sup>4</sup> *oy*: ‘ohi’; Lazarragaren eskuizkribuan, hamabi aldiz ulertu dugu *oy / oi* partikulak ‘ohi’ adierazten duela: *egon oi da* (A14: 46), *oy ninduan penadu* (B12: 4), *Gabaz-egunaz oy nituan / aren ateac rondadu* (B12: 5-6), *nic jagui bear oy dot oçac ilic* (B15: 48) eta *Bezpera artan gentez oy da / ayuntamiento andia* (B22: 19-20), *Eleiçara juen oy naiz, / eguin oy det becatu* (B27: 1-2), *Avemaria asi baice, / ecin oy det notatu* (B27: 3-4), *ofrendara dianean / ondo oy det miratu* (B27: 9-10), *Sperançeaç bici oy n[aiç] / erri oneçaç atean; / sperancea galdu oy det / errira natorrenean* (B28: 7-10).

<sup>5</sup> *neroean / requeridu ta seguidu*: ‘errekeritu eta segitu ohi nuen, maitasuna galdatu ohi nion eta segitu ohi nuen’; “partizipioa + *eroan*” perifrasiak, ikusi B12: 1-2ko oharra.

<sup>6</sup> *Aldi bat*: ‘aldi batez, behin batez’; hemen bakarrik dauka, gure ustez, adiera hori; beste hiru aldiz aurkitu dugu *aldi bat* eskuizkribuan, baina ‘behingoz’ adierarekin (A8: 8, A17: 48, A17: 61).

<sup>7</sup> *cidan*: *Cidan* forma ez da hain bakana eskuizkribuan (cf. *cidan* 9 aldiz eta *eustan* 3 aldiz).

<sup>8</sup> *çatozque*: ‘zatoz, etor zaitez (geroan)’; *etorri* aditzaren geroaldiko aginterazko forma trinkoa da. Aginterazko adizkia *-ke* atzizkiarekin osatzean, aginduaren betetzea geroan kokatzen da, solas unetik kanpo. Geroaldiko agintera oso ohikoa da *Refranes y Sentencias* bizkaierazko atsotitzen bilduman (*çe eyquec maurtutii hoaneâ, eder eztanic calean RS 36, Gach çe erexqueoc yñori, ta emac vereâ edoceyni RS 312*), eta aztergai dugun Lazarragaren testuan: *ce eucaiqueçu* (A27a: 24), *sinis eçaqueçu / ene eguia* (B9: 13-14), *Jentil onbrea, ona çatozque, / gura banoçu gozadu* (B12: 11-12) eta *arren, aguîr çaytesq[ue]* (B28: 3). Bizkitartean, ez dirudi soilik mendebaldeko euskararen ezaugarria izan denik, gipuzkera eta lapurtera zaharrean (Etxeberri Ziburukoa eta Etxeberri Sarakoa) ere biltzen baitira gisa horretako formak.

<sup>9</sup> *oa*: ‘hura’; *OEhk* ez dakar aldaera hau; cf. s.v. *hura*: “**hura** (G, AN, L, BN, S, R-uzt; SP, Urt I 495, Ht *VocGr* 373 y 337, Lar, Añ (G, AN), Gèze), **ure** (G-azp-goi-nav, AN-larr-5vill-ulz-erro-gulina, B), **hua** (G-to-bet-nav, BN-arb-ad, S), **ue** (G-goi, AN-larr), **aura** (V-gip, G-azp), **ga** (Ae), **gura, kura** (Sal, R), **ore** (AN-ulz-gulina). Ref.: Bon-Ond 169; A (*ura, kura, ga*); Iz *Ulz (ore)*; Etxba *Eib (aura)*; *EAEL* 147, 152”.

neguianean aditu, <sup>10</sup>	
reberencia jaguiteco <sup>11</sup>	15
belaunoc neben incadu. <sup>12</sup>	
Criança <sup>13</sup> onez gura equion <sup>14</sup>	
ni arerean <sup>15</sup> goratu; <sup>16</sup>	
escu çardenaz <sup>17</sup> baequidan	
neure besoti oratu. <sup>18</sup>	20

<sup>10</sup> *neguianean aditu*: ‘entzun nuenean’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>11</sup> *reberencia jaguiteco*: ‘hari erreberentzia egiteko’; *jagui-* hainbat aldiz agertzen zaigu eskuizkribuan. Askotan aditz trinkoa edo beregaina da, baina laguntzaile gisa ere agertzen zaigu, partizipioa aditz nagusizat harturik. Bestalde, gehienetan aditz jokatugabea iduri du: *Jri remedio emun jaguif* (AL: 1138r), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguiten* (AL: 1152r), *eta prometidu even biac ez alcarri ichi jaguiteco, arean da Sirena ta Silvia idoro artean* (AL: 1152v), *cegaiti artu ez daiquean / oy beste servidorenic; / oy alcançadu daiqueano / ez artu jaguin celoric* (A14: 99-102), *Orain dama bat servietan dot, / lindea parebagea; / oy eztauco meresciduric / niganic ancietea / eguin deustan mesedeac / servidu jaguin artean* (A24: 131-136), *Jaun Cerucoac / çuri bidaldu jaguinic; / adietaco / badeçu miramenturic, / ez consentidu / ceure lurrean gaxtoric* (A28: 165-170), *Aren aoti berba oa / neguianean aditu, / reberencia jaguiteco / belaunoc neben incadu* (B12: 13-16), *Apea nindin çaldirean; / guchi bat apartaduric / berba neguion lurrerean, / neurau nengoan lecrean / reberencia jaguinic* (B16: 66-70), *Beti nabil caso au dala / trabajadua azquero, / inox dicharic eztudala / bencedoreçat atabala / jo jaguiteco sendoro* (B16: 111-115), *guztiay berba jaguinic* (A29: 50), *modu onetan / oyta berba jaguinic* (A29: 79-80). Edozein kasutan, beti agertzen da iragankor gisa eta datibozko argumentu batekin. Uste dugu aditz ezezagun horren azpian egin aditzaren forma hirupertsonala (NORK-NORI-NOR) ezkututzen dela.

<sup>12</sup> *belaunoc neben incadu*: ‘(begirunea erakusteko) belaunikatu nintzen’; *belaunak inkatu* esamoldea ez dugu aurkitu ez OEHN ez [Klasikoen Gordailuan](#), baina gaztelaniazko *hincar la(s) rodilla(s)* esamoldearen itzulpena da. Cf. *DAut*, s.v. *hincar*: “HINCAR LA RODILLA O HINCARSE: Postrarse, humillarse poniendo las rodillas en tierra, en señal de rendimiento y reverencia”.

<sup>13</sup> *Criança*: ‘heziera, hezibide’; cf. *DAut*, s.v.: “Vale también urbanidad, atención, cortesía; y así las acciones buenas y honradas se califican por *de buena crianza*; y al contrario las malas y descortesés, por *de mala crianza*”.

<sup>14</sup> *gura equion*: ‘gura zekion, nahi izan zuen’; *gura izan* aditz-lokuzioaren aoristo edo iraganaldi burutu zaharra da. Eskuizkribuan hemen bakarrik agertzen zaigu *gura izan* aditz-lokuzioa balentzia berezi honekin: espermentatzailea (edo subjektua) datiboan du eta estimulua absolutiboan; gainerakoetan NOR-NORK edo NOR-NORI-NORK erregimenak baliatzen ditu. Aldiz, *nahi izan* maizago aurkitzen dugu balentzia berezia duelarik; ikusi AL: 1140r ataleko oharra, s.v. *nai daquiçula*.

<sup>15</sup> *arerean*: ‘handik’; Lazarragaren eskuizkribuan, *arean* ablatibo zahar simplea (AL: 1143r, A24: 82 eta *areanche* A27: 33), *arerean*, hartatik eratorria (B12: 18, B16: 84 eta B16: 138) eta *arereanic*, eratorriaren pleonastikoa (A24: 130, B5:71), hirurak aurkitu ditugu, bai eta *aric* (B33: 26) ere.

<sup>16</sup> *goratu*: ‘altzarazi’; cf. Lcc “alçar lo caydo, *goratu eszina*”.

<sup>17</sup> *çardenaz*: ‘lirainaz, lerdenez’; OEHN Azkueren hiztegiakoak dira datu nagusiak: “**zarden** (V-ger-arroroz-och-m-gip), **zardain** (V-ger), **zardin** (V-ger), **sarden** (V-gip)”. Lazarragaren eskuizkribuan hiru aldiz dago: *escu çardenaz* (B12: 19), *oñ-escu çardenoc* (B15: 10) eta *Neure araguioç dacustanean / cein çarden direan escuchoetan* (B15: 61-62).

	Arc niri tira, nic ari pulça, <sup>19</sup>	
	aynbat neguian aspertu, <sup>20</sup>	
	supitamente <sup>21</sup> baequion	
	uzcar andi bat soltadu.	
	Nesca gaxoa aynbat cidin	25
	afrontadu <sup>22</sup> ta corridu, <sup>23</sup>	
	beguietati laster equion	
	itoguincho bi mobidu.	
	Nic baneguian aleguinaz <sup>24</sup>	
	palagadu <sup>25</sup> ta exildu;	30
	finjidu neben ez nebela	
	nic alacoric aditu. <sup>26</sup>	
	Esan eustan: “Ay, ene jauna,	
	çuc eguidaçu parcatu;	
	secula barriz ecin neynde <sup>27</sup>	35
	çure aurrean aguirtu.	
<1180r>	Coplaric ondo ordenaet[an	
	abilidade <sup>28</sup> badoçu,	

<sup>1818</sup> *baequidan* / *neure besoti oratu*: ‘bazekidan oratu neure besotik, bazitzaidan oratu neure besotik’, hots ‘oratu zidan neure besotik’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Testu arkaikoenetan, *oratu* aditza NOR-NORI erregimenarekin lekukotzen da. Cf., bestalde, *egaz manequi ora nequiqueo choriari* (RS 230). *Baequidan* (hura-niri) adizkia beherago ere erabiltzen da (B12: 41).

<sup>19</sup> *pulça*: ‘bultza; cf. Lcc “empuxar, *pulçatu*”. *OEH*ren arabera, Otxandion ere *pultza*- erabiltzen da.

<sup>20</sup> *neguian aspertu*: ‘nekatu nuen’; cf. Lcc “cansar, *aspertu*”. Cf. orobat, *OEH*, s.v. *aspertu*: “2. [...] Cansar(se); desanimar(se); aburrir(se)”.

<sup>21</sup> *supitamente*: Gaztelaniazko *CORDE* datu-basean, XVI. mendean, 31 aldiz aurkitu dugu *supitamente*, eta 63 aldiz *subitamente*.

<sup>22</sup> *afrontadu*: ‘lotsatu’; cf. *DAut*, s.v. *afrentarse*: “Avergonzarse, sonrojarse”.

<sup>23</sup> *corridu*: ‘lotsatu’; cf. *DAut*, s.v. *correrse*: “Avergonzarse, tener empacho de alguna cosa que se ha dicho o hecho”.

<sup>24</sup> *aleguinaz*: ‘ahaleginean, ahal izan nuen moduan, indar guztiekin’; *OEH*n bilduriko lehenengo lekukotasuna XVIII. mendekoa da (Larramendiren Azkoitiko sermoia, 1737koa).

<sup>25</sup> *palagadu*: ‘balakatu, baretu, lasaitu, sosegatu’; ikusi baita *palagadu al banegui* (A19: 64).

<sup>26</sup> *aditu*: ‘entzun’.

<sup>27</sup> *ecin neynde*: ‘ezin ninteke’; *neynde* laguntzailea \**edin* aditzeko potentziala da, oraindik *-ke* atzizkirik gabe. Cf. *ceitean* (AL: 1143r).

<sup>28</sup> *abilidade*: Objektu funtzioan dagoen izena bere forma mugagabearen dugu hemen. Mugagabearen erabilera arkaiko hau, izen zenbakaitz edo interpretazio pluraleko zenbakarriekin azaleratzen dena,

orayn eguin dan ortos <sup>29</sup> andiaiu	
metrificadu eguiçu”.	40
Au esan eta baequidan	
ies <sup>30</sup> eguin da <sup>31</sup> estaldu; <sup>32</sup>	
ilabetean ecin oy <sup>33</sup> neben	
secula barriz topadu. <sup>34</sup>	
Egun batean leucala <sup>35</sup>	45
beste baçugaz <sup>36</sup> cabildu, <sup>37</sup>	

ekialdeko hizkeretan da bizirik egun (cf. Oihenarten 279. *Inzaur duenak jateko, aurkit diro harri hausteko* eta egungo “badu indar” bezalakoak). Badirudi, Lazarraga lekuko, XVI. mendean hedadura handiagoa zuela ezaugarri honek. Eskuizkribuan gutxienez halako lau aurkitu ditugu: *Romeria bat eguiteco*, / *jauna, daucat nic gogo* (AL: 1147r), *neurc jaquin ez arren, badogu diru* (B3: 17), “*Ene semea*”, *baesadan*, / “*artu eguiçu esporçu*” (B16: 142) eta hau.

<sup>29</sup> *ortos*: ‘trumoi’; *OEHN* (s.v. *ortots*) goi- nafarrerazko lekukotasunak baino ez daude.

<sup>30</sup> *ies*: Eskuizkribuan *yes* dakar, baina zalantzarik gabe *ies* irakurri behar da, hiatoarekin, metrikaren arabera (cf. orobat AL: 1154v).

<sup>31</sup> *da*: ‘eta’.

<sup>32</sup> *estaldu*: ‘ezkutatu’; cf. Lcc “encubrir, *estaldu*”.

<sup>33</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>34</sup> *ecin oy neben / secula barriz topadu*: ‘ezin izan nuen sekula berriz topatu’; Lazarragak “partizipioa + *izan* / \**edun*” perifrasiak askotan erabiltzen du, *al* edo *ezin* partikuluak lagun dituela, iraganeko potentzialaren adierazteko. Beti balio burutua du.

<sup>35</sup> *leucala*: ‘zeukala’; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurrizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emateaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joela, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 5-12), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), *Fray Vicentec esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>36</sup> *baçugaz*: Badirudi eskuizkribuan *batzu* dela oinarrizko gisa erabiltzen den forma. Absolutibozkoetan *batzu* forma bakarrik darabil (AL: 1139v, AL: 1141v, AL: 1146v, AL: 1154v), Hegoaldeko testu zaharretan agertzen ez dena; ikusi *OEHK* zer dioen (s.v. *batzu*): “Los autores septentrionales de los ss. XVI-XVII distinguen formalmente los casos absoluto y ergativo; hay dos sistemas: *batzu / batzuk* es el de Leizarraga (Dechepare usa *batzu* para el caso absoluto, pero no hay ejs. de ergativo), y *batzuk / batzuek* el de Axular y Etcheberri de Ziburu; Pouvreau utiliza ambos: *batzu, batzuk / batzuk, batzuek*. [...] Al Sur no hay diferenciación formal: en los textos guipuzcoanos, desde el s. XVIII, se encuentra *batzuek* para ambos casos, y en los vizcaínos —ya desde Capanaga— *batzuk*”. Soziatibozko forma (*baçugaz*) horren gainean eraikia dela dirudi, *-gaz* gehituta; genitiboari dagokionez, *baçuen* da

aen artera içan ninçan

exil-exilic coladu.<sup>38</sup>

Aren aldean jasarri<sup>39</sup> ninçan

cerren ez lidin uçatu;<sup>40</sup>

50

badanic bere<sup>41</sup> bertan<sup>42</sup> eben

---

darabilen forma bakarra. Hauxe dakar *OEH*k: “*Batzuen* es casi la única forma para el genitivo: *batzuren* sólo se encuentra en Leizarraga (junto a *batzuen*), Oiherart y unos pocos autores meridionales del s. XX”.

<sup>37</sup> *cabildu*: ‘bilera’; testu honetan *cabildu* hitzak adiera hedatua hartu du; cf. *OEH*, s.v. *cabildo*: “Cabildo (eclesiástico)”; cf. orobat *DAut*, s.v. *cabildo*: “La junta que tienen y celebran los canónigos y prebendados de las iglesias catedrales, colegiales y otras eclesiásticas seculares, como también los regidores y veintiquatros de las ciudades y villas para tratar y conferir lo tocante a sus cuerpos, estado y gobierno” eta “Se llama también la junta de algunas personas de un gremio, congregación, cofradía, etc.”

<sup>38</sup> *içan ninçan* / *exil-exilic coladu*: ‘kolatu nintzen isil-isilik’; egitura birkonposatuak (“partizipioa + *izan* + laguntzailea”) biziki ohikoak dira Leizarragaren testuan iragan burutuaren balioarekin: *Eta uncián sarthu cenean, iarreiqui içan çaiçcan bere discipuluac* (Leiz. Mat. VIII, 23), *Eta iragan cenean berce aldera, Gergesenén regionera, aitzinera ethorri içan çaiçcan bi demoniatu* (Leiz. Mat. VIII, 28). Lazarragaren adibide hau garrantzi handikoa da, egitura horren lekukotasunik zaharrena baita Lapurditik kanpo.

*coladu*: ‘isilka sartu’; cf. *DAut*, s.v. *colar*: “Metaphóricamente vale passar por alguna parte estrecha y dificultosa”.

<sup>39</sup> *jasarri*: ‘jesarri, eseri’; *jasarri* aditzaren esanahiari dagokionez, badirudi hala ‘eseri’ (A17: 99, A26: 149, B12: 49) nola ‘jarri’ (A10: 7, B5: 13, B15: 63) esan nahi duela eskuizkribuan, testuinguruaren arabera.

<sup>40</sup> *cerren ez lidin uçatu*: ‘uxatua izan ez zedin’; helburuzko perpausa da, “*zerren* + subjuntiboa” egiturarekin. uçatu formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *uxatu*: “Hay *uzatu* en *RS* y *Otxolua*”. Aditzaren egiturari dagokionez, testu arkaikoenetan oso ohikoa da “aditzoina + \**ezan*” eta “partizipioa + *egin*” perifrasiak intrantsitibo bilakatzea (pazientea subjektu bihurtuz eta laguntzaile iragankorra \**edin* laguntzaileaz ordezkatzuz), irakurketa pasiboa emateko: *Eraman cedin Spirituaz desertura, deabruaz tenta ledinçát* (Leiz. Mat. IV, 1), *Yzterbegui duyen oro nitan vedi gaztiga* (Etxp. XIII, 16), *Hil adi, alaba aite* (Oih. Prov. 235). Bestalde, XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurritzidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacén* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eguin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 5-12), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguioala, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), *Fray Vicentec esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>41</sup> *badanic bere*: ‘hala ere’; *badanic bere* *OEH*n ez dago jasota, baina cf. *badarik* ‘hala ere’: funtsean Iparraldean lekukotzen bada ere, badago GN-zko adibiderik (1609ko poesietako batean, zehazki), eta

cerbait liçana<sup>43</sup> somadu.  
 Içur-ariau<sup>44</sup> baequidan  
 sentidu baga ascatu;  
 guztizco uzcar terrible bat 55  
 nic baneguion pulçatu.<sup>45</sup>  
 Esan neguion: “Ene laztana,  
 ez onegaiti penadu,  
 cegaiti orain çu ta ni gara  
 bioc igual gueratu”. 60

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Poema hau testu nagusiaren eskuinean idatzita dago, testu nagusitik marra bertikal batez bereizirik, 1179v orrialdean (B12: 1-36 bertso-lerroak) eta 1180r orrialdean (B12: 37-60 bertso-lerroak). Bertso-lerroak launaka bereizi dira, eta 1179v orrialdeko laukote bakoitzak zenbaki bat du ezker-aldean (1-9); 1180r orrialdeko bertso-lerroetan, soilik lehenengo laukoteak (B12: 37-40) dauka ahapaldi-zenbakia (10), kasu honetan ez ezkerrean, gainean baino. **2** servidu] eskuinean, *La buena* oharra idatzita dago, baina ez dago argi poemarekin erlazionaturik dagoen ala bestelako oharra den. **3** audenciariç ez emunaz] *ene esana* idatzi du lehenengo, baina hori marra batez tatxatu eta hurrengo lerroan jarraitu du. **19** çardenaz] aurrean *lindeaz*, marra batez tatxatuta. **21** pulça] litekeena da *pu-* silabaren azpian beste zerbait lehenago idatzita izatea. **23** supitamente] aurrean *indarraregaz*, marra batez tatxatuta. **28** bi] aurrean *g*, tatxatuta. **33** Esan] aurrean *secula*, marra batez tatxatuta. **37** Coplaric] aurrean *gu ba*, marra banaz tatxatuta. || ordenaetan] *-an* galdu da, orria eskuineko aldetik moztuta dagoelako. **45** leucala] aurrean *egon*, marra batez tatxatuta. **50** cerren ez lidin ucatu] *andiro çidin gozadu* idatzi du lehenengo, baina hori marra batez tatxatu eta hurrengo lerroan jarraitu du. **57** Esan] esk. *esesan*. Duplografia delakoan zuzendu dugu.

Otxoa Arinek ere erabiltzen du. Lazarragaren eskuizkribuan zazpi aldiz aurkitu dugu: A6: 43, A10: 61, A24: 51, A26: 13, A27a: 7, B5: 27 eta B12: 51.

<sup>42</sup> *bertan*: ‘berehala’.

<sup>43</sup> *liçana*: ‘zela’; *-na* konpletibo da. Hasierako *l-* aurrizkiari buruz ikusi B12: 45 bertso-lerroko oharra.

<sup>44</sup> *Içur-ariau*: ‘izur-hari hau, izurra tolesturik izateko erabiltzen den hari hau’; dirudienez, ipurdia izurra bezala itxita edo “tolestuta” eusten zuen haria askatu zaiola eman nahi du aditzera.

<sup>45</sup> *pulçatu*: *Uzker* izena *bota*, *egin...* eta halako aditzekin aurkitu dugu euskaraz, baina behin ere ez *bultzatu* aditzarekin. Cf. Lcc. “peer, *uzcarr eguin*”.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B12 – Tenpora baten baneroean...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](#) dago